



Rocks • Erresuma Batua

Sarah Gavron (zuzendaria)
Theresa Ikoko (gidoilaria)



Bazterkeriaren ondorioak modu alaian kontatuak

SERGIO BASURKO

Sarah Gavronek *Brick Lane* filmarekin egin zuen zuzendaritzan debuta, Zinemaldiko zuzendari berrien atalean parte hartuz gainera; zortzi urte beranduago bere bigarren fikzio-film luzea zuzendu zuen, *Suffragette*; eta hirugarrena, *Rocks* drama soziala,

Urrezko Maskorren lehiara ekarri du aurten.

Rocks nerabea itxuraz zoriontsu bizi da Londresko auzune kulturantz batetan ama eta anaia txikiarekin, baina inguruan duen mundua gainbehera egiten hasiko zaio ustekabean amak etxetik ihes egiten duenean. "Hala ere –argitu du zuzendariak–, gaztaroko

bizipozari, erresistentzia-ahalmenari eta espirituari buruzko filma da".

Filmaren ardatza Rocksek eta bere lagun taldeak osatzen dute. Neskak horiek aurkitzeak urte osoko lana eman ziela azaldu dute Gavronek eta Theresa Ikoko gidoilaria. "Prozesua oso berezia izan zen, neskak gidoia idatzi aurrekin aurkitu genituelako eta,

beraz, gidoia horien arabera idatzi genuen", esan du Gavronek.

Aukera mugagabeak

Filma Londresko ekialdeko Hackney auzunean filmatu zuten. Bertan kultura ezberdinak jendea bizi dela eta maiz bazterkeria kasuak ematen direla nabarmendu dute zuzendariak zein gidoilaria, baina protagonistaren egoera hori testuingurua finkatzeko soilik erabili nahi izan dutela adierazi dute. "Bazterkeriaz hitz egiten duten film asko daude, amorrua agertzen dutenak. Sarritan entzuten dugu arazoak dituzten gazteak direla, gazkile taldetan sartzen direla... hor ikussten da zein den bazterkeriaren ondorioa. Amorrua sentitzeko arrazoi asko dituzte, ez zaizkie aukera one-nak eman, baina hala ere saiatzen dira duten onena ematen", argudiatu du Ikokok, eta euren nahia "gazteak nolakoak diren erakustea" izan dela nabarmendu du: "aukerez betetako pertsonak dira eta behar bezala tratatzentz badira aukera horiek mugagabeak izan daitezke".

Filmaketaz Gavron mintzatu da. Azaldu duenez, filmatzeko prozedurak dokumentalaren tankerakoak izan ziren, neskatoak ahal bezain erosoa egotea eta naturaltasunetan jokatzea baitziren zuzendariaren helburuetako bi. "Hasieratik argi genuen bizpahiru kamera izango genituela, neskak ahalik eta modu naturalenean lan egin zeazaten", azaldu du, eta zeregin horretan Helene Louvert argazki-zuzendariak izan duen papera azpimarratu du: "Iraganean gizonekin lan egin izan dut eta kasu honetan emakumeengana bakarrik jotzea erabaki nuen. Helenek bereziki oso modu emozionalean erantzun zuen, sekuentzia bakoitzaren emozioei buruz hitz egiten zuen eta berak zerikusi handia izan du benetako lekuetan soilik filmatzea erabakitzearik. Ez dugu set bakar bat bera ere erabili eta horrek eragin du neskak inguru propioan zeudela sentitzea".

Ode to joy in Hackney

Director Sarah Gavron and scriptwriter Theresa Ikoko are in San Sebastián to present *Rocks* which is competing in the Official Selection.

Their film is a portrait of the resilience you can find in a mixed ethnic neighbourhood in the East End of London, which as they're both Londoners themselves, they wanted to bring to life in a way that hadn't been seen before. They both stressed that a lot of films address the problems in socially marginalized communities, but that rather than focusing on anger and rage, they wanted to celebrate the love and capacity for joy that these girls express and to focus on the friendship between them that carries them through despite all the problems that they face. The director pointed out that, "one of the most striking things that I discovered was just how much tenacity and drive they had, which was something you just don't see in other films." She added that, "you can't be near them without laughing: they're some of the most joyful people in the world." They also mentioned that the casting process was rather unusual as they found the girls before they started writing the script, so they built the film around them and went into schools in the East End for over a year in what was a unique combination of casting and research.

EMMA SUÁREZ

AKILAS KARAZISIS

CON GAIZKA UGARTE · KATERINA ZAFFEOPOLOU · KOSTAS PETROU · ANTONIS KAFETZOPoulos

ESCRITA POR LUIS MOTA MEDADO · MIGUEL ÁNGEL JIMÉNEZ DIRECCIÓN DE MIGUEL ÁNGEL JIMÉNEZ

DIRECTOR DE FOTOGRAFÍA: GORKA GÓMEZ ANDRADE · DISEÑO DE SET: ALEXANDRA COLOMOS · AZEGRIÑE URUGOTIA

PROPIEDADES INTELIGENTES: DESPINA CHIMONAL · NEREA TORRICO · PASCAL GAGONE · HELENNE CAVES · MAKIS GATIS · TXARI ATA · SONIO NIKOS KONSTANTINOU · ASIER GONZÁLEZ MAGIRIBAI · ANTONIA ESKIBAL ETXANOLA · IMANOL GOMEZ DE SEGURA · EDICIÓN DE SONIO · IOSU GONZÁLEZ

PRODUCCIÓN: LUIS DE OZA · JAVIER ARSUAGA · LARA IZAGIRRE · CORREDORRES: GIORGOS KARNAVAS · KONSTANTINOS KONTOURAKIS

PRODUCCIÓN POR KINOKÓPIS FILM PRODUCTION · GARZA FILMS · SUMENDIA FILMS · COSMOTE FILM · COPRODUCCIÓN POR HERETIC

CON EL APoyo DE EITB · GOBIERNO VASCO · GREEK FILM CENTER · EURIMAGES · EUSKALTEL · COSMOTÉ TV · EHOME S.A.

UNA PELÍCULA DE MIGUEL ÁNGEL JIMÉNEZ

una ventana al mar

SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
ETIB GALA

KINOS KOPÍK **gariza FILMS** **eretic** **etib** **EUSKADIA JAKINTZIA** **GOBERNIO VASCO** **GREEK FILM CENTRE** **EURIMAGES** **COUNCIL OF EUROPE** **euskaltel** **COSMOTÉ TV** **OCIO** **Blue Star Ferries** **heretic** **filmax**